

Haur Literatura Lantegia (0-8 arte)

Uzt. 04 - Uzt. 06 2017

Kod. L2-17

Mod.:

Aurrez aurrekoa



Edizioa

2017

Jarduera mota

Tailerra

Data

Uzt. 04 - Uzt. 06 2017

Kokalekua

Donostiako Haur Liburutegia

Hizkuntzak

Euskara

Antolakuntza Batzordea





Azalpena

Haur Literaturak sostengatzen du haurren garapen emozionala eta intelektuala, neurri handi batean; gainera, irakurketa sustatzeko baliabide paregabea omen da eta hizkuntzaren kalitatea hobetzen omen du... Onura guzti horiek ordea, ez dira atzemango Haur Literaturaren erabilpen sistematizatu batean baino.

- Lantegian Haur Literatura sistematizatzeko irizpideak aztertuko dira: zer, zergatik eta nola?
- Poesia eta ipuin adibideak eta baliabideak aztertuko dira.
- Proposamen zehatzak gauzatuko dira elkar lanean.



Programa

2017-07-04

09:00 - 11:15 "Tradiziozko ipuinen azterketa"
Itziar Zubizarreta Ayerbe Galtzagorri Elkarte - Zuzendaria

11:45 - 13:35 "Taldeka proposamen bat prestatu"
Itziar Zubizarreta Ayerbe Galtzagorri Elkarte - Zuzendaria

2017-07-05

09:00 - 11:00 "Poesia haurraren garapenean eta Poesia baliabideen aurkezpena"
Juan Kruz Igerabide Sarasola Galtzagorri Elkarte - Irakaslea

11:00 - 13:45 "Taldeka proposamen zehatzak prestatu"
Itziar Zubizarreta Ayerbe Galtzagorri Elkarte - Zuzendaria
Juan Kruz Igerabide Sarasola Galtzagorri Elkarte - Irakaslea

2017-07-06

09:00 - 14:00 "Taldeka proposamen bat burutu eta haren aurkezpena"
Itziar Zubizarreta Ayerbe Galtzagorri Elkarte - Zuzendaria
Juan Kruz Igerabide Sarasola Galtzagorri Elkarte - Irakaslea



Zuzendariak



Itziar Zubizarreta Ayerbe

Galtzagorri Elkartea, zuzendaria

10 urtez Herri Ametsa Ikastolan HHko irakasle izan ondoren, Elizbarrutiko Irakasle Eskolan, Hizkuntza eta Haur Literaturaren Didaktikako irakasle izan zen. 1991tik aurrera, hainbat ikastetxetan Hizkuntz-trataeraren berrikusketak burutu zituen metodologia eta baliabide proposamen zehatzak bideratuz. 2002tik aurrera, Galtzagorri Elkarterako hainbat egitasmo diseinatu eta aurrera eraman zituen: Bularretik Mintzora eta Areto Literarioak kasu. Zuzendaritza batzordearen enkarguz OEPLi elkarteko lehendakaria izan zen eta Mari Jose Olaziregirekin elkarlanean komisario lanak burutu zituen Haur eta Gazte Lteraturako IV. Iberiar Biltzarra: "Desberdin irakurriz" Donostian 2008an.

Irakasleak



Juan Kruz Igerabide Sarasola

Juan Kruz IGERABIDE SARASOLA Adunan jaio zen (Gipuzkoa) 1956an. Zenbait urtean lehen eta bigarren hezkuntzako irakasle izan ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle jardun da Euskal Filologia sailean. Mikel Laboa Katedraren zuzendaria ere izan da aipaturiko unibertsitatean. Haur eta gazteentzat idatzi du gehienbat, eta baditu zenbait lan helduentzat ere, hala poesian nola prosan. Haur literatura ikertuz, besteak beste saiakera bat idatzia du (Bularretik mintzora, Erein, 1994).



Matrikula prezioak

MATRIKULA	2017-05-31 ARTE	2017-07-04 ARTE
OROKORRA	81,00 EUR	95,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA	48,00 EUR	-
MATRIKULA EXENTZIOA	20,00 EUR	20,00 EUR
AEK	70,00 EUR	-
MATRIKULA BEREZIA	-	48,00 EUR



Kokalekua

Donostiako Haur Liburutegia

Fermín Calbetón nº 25

Gipuzkoa